

HITZEKIN

MEZUA

CASTELLANO

Herri honen eztarritik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.

Oihu honek hogeita bigarrenez erakutsi digu hizkuntza bat ez dela hitzekin egiten bakarrik, hitzekin eta gorputzkin baizik. Belaun eta hanken gainean trostan eraman daitekeela hitza; dardara, arnasesut eta izerdi artean pasatu ahal zaiola elkarri eskutik eskura.

Hizkuntza zerbait fisiko bihurtzeko ahalmena du Korrikak. Gure a e i o u partikularra gorpuzteko. Eta hori behar du euskarak: haragi bihurtzen diren hitzak.

Euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, arnas aparatu eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrera. Malko eta listuz bustitzea behar du euskarak. Hatz markaz zikintzea.

Zikindu dezagun, beraz, euskara; lohitu dezagun bizitzaz. Eta egin dezagun euskararekin hainbat inertziaren kontra:

Hitzak hustu egin diren garai batean, bete ditzagun euskararen berbak harri eta herriz.

Dena erosi eta saldu omen daitekeen garaian, erakutsi dezagun zein merkea den gure hizkuntza: debalde hartzen dugu herriaren ahotik eta debalde ematen diogu herriaren belarriari.

Indibidualismoa indartuz doan garaian, egin dezagun euskara kolektibo bat, denon artean eta denona.

Gerren sasoian, lehenetsi dezagun beti hitza.

Influencer eta youtuberen aroan, izan ditzagun guk bestelako jainko txiki inspiratzaileak.

Euskararen pronostikoa gugan dagoela gogorarazi zigun Pello Zabala, adibidez.

Edo euskaraz apaltasun eta harrotasun hitzak bateragarriak direla erakutsi zigun Joan Mari Torrealdai.

Edo euskara ez dela zaila, euskara nahia dela erakutsi ziguten Elbira Zipitria, Julene Azpeitia edo Izaskun Arrue bezalako andereñoak.

Eta etiketen garaian, ahaztu ditzagun behingoz euskaldun berri eta zaharrak. Iraultzia honetan, lasterketa honetan, denok garelako euskaldun berri. Hizkuntza bat egunero hasten delako, egunero berritzen delako. Hizkuntza bat ez delako jaiotzen, egin egiten delako.

Sinistu dezagun euskara ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik.

Eta atera dezagun gure eztarrietatik Mauriziaren irrintzi baten indarraz.

EKIN EUSKARARI, EUTSI KATEARI!

GORA KORRIKA ETA GORA EUSKARA!

Un grito surgido de la garganta de este pueblo. Eso es Korrika.

Este grito nos ha enseñado, por vigesimosegunda vez, que un idioma no se compone solamente de palabras, sino de palabras y de cuerpos al mismo tiempo; nos ha mostrado que las palabras pueden transportarse a la carrera encima de rodillas y piernas; nos ha demostrado que es posible transmitirse de mano en mano el temblor, la respiración fatigada y el sudor.

Korrika tiene el poder de convertir el idioma en algo físico, de dar cuerpo a nuestro a e i o u particular. Y precisamente eso necesita el euskera: palabras que se devienen carne.

El euskera precisa de un esqueleto, de una anatomía, de un aparato respiratorio y de un sistema nervioso. Necesita una espalda sobre la cual poder avanzar. El euskera tiene necesidad de ser rociado con lágrimas y sudor, de ser ensuciado con huellas de dedo.

Por lo tanto, ensuciemos nuestro idioma; manchémoslo de vida. Y luchemos, con el euskera, contra varias inercias:

En una época en la que las palabras se han vaciado de sentido, llenemos las del euskera de piedra y pueblo.

En unos días en los que parece que todo puede ser vendido y/o comprado, demostremos cuán barata es nuestra lengua: la recogemos sin pagar nada de la boca del pueblo, y sin cobrar nada se la ofrecemos al oído del pueblo.

En un tiempo en el que el individualismo se hace predominante, hagamos un euskera colectivo, entre todos/as y de todos/as.

En periodo de guerras, prioricemos siempre la palabra.

En esta era de *influencers* y *youtubers*, tengamos nuestros propios pequeños námenos inspiradores.

Por ejemplo, Pello Zabala, quien nos recordó que la predicción del euskera reside en nosotros/as.

O Joan Mari Torrealdai, que nos enseñó que en euskera son compatibles las palabras de modestia y las de orgullo.

O profesoras como Elbira Zipitria, Julene Azpeitia e Izaskun Arrue, quienes nos mostraron que el euskera no es complicado y que, en suma, es voluntad.

Y en esta época de etiquetas, olvidemos de una vez por todas los términos “euskladún nativo” y “no nativo”, porque en esta revolución todos/as somos nuevos/as en el idioma, ya que el lenguaje comienza todos los días, se renueva diariamente; ya que las lenguas no nacen: se hacen.

Creamos de verdad que el euskera no es algo que nos pertenece, sino algo que somos.

Y hagamos que surja desde nuestras gargantas con la fuerza de un *irrintzi* de Maurizia.

¡APOYEMOS AL EUSKERA, MANTENGAMOS EL VÍNCULO!

¡VIVA KORRIKA Y VIVA EL EUSKERA!

Karmele Jaio Eiguren

aek
22.korrika
Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

korrika.eus

